

IKUS-ENTZUNEZKOETARAKO MAKILLAJEA LANTZEN HASTEKO TAILER PRAKTIKOA

SOLERBMAK estudioak aukera ematen dizu biziki maite dugun ofizioa eta lanbidea ezagutzeko; izan ere, 30 urte baino gehiago daramatzagu horretan lanean. Lan-aukera berrietarako lehen urratsa.

Norentzat?

Ikus-entzunezkoen arloan, makillatzaile-lanbidean **LEHEN PAUSOAK** eman nahi dituztenentzat.

Zer ikasiko duzu?

Ikus-entzunezkoetako makillajearen alderdi bereziak eta bereizgarriak identifikatzen irakatsiko dizugu, tresnak ezagutuko dituzu eta horien erabileran trebatuko zaitugu, eta lan-eremu bakoitzerako egokienak diren oinarritzko teknikak ikasiko dituzu.

Nola?

Errealitatea eta praktika dira gure eskolaren oinarria. SOLERBMAK estudioko taldeak egindako benetako lanen bidez ikusiko duzu nola sortzen den ikus-entzunezko bakoitzerako makillajea. Oinarritik hasita, lan horiek xehetasunez aztertuko ditugu eta, gero, zure ondoan egongo gara eta ikasitakoa gauzatzen lagunduko dizugu.

METODOLOGIA PERTSONALIZATUA, ATSEGINA ETA BENETAKO ESPERIENTZIAN OINARRITUTAKO AUKERAK DIZUGU.

Programa

IKUS-ENTZUNEZKOETAKO MAKILLAJEA

- Zergatik eta zertarako makillatzen dugun.
- Lan-tresnak**: Nola prestatu maletatxoa?

TEKNIKA

- Produktu** bakoitza aplikatzeko metodoak.
- Aurpegiaren azterketa eta egin litezkeen zuzenketak.
- Makillaje**-fondoak.
- Kolorearen** garrantzia eta xedea.

MAKILLAJEA EREMU BAKOITZERA EGOKITZEA

- Garaian garaiko makillajea.
- Publizitatea eta moda**: makillajea eta modeloak.
- Telebistako** aurkezleen makillajea.

Zer gehiago jakin nahi duzu?

- Ikastaroaren zuzendaria: **Amaia Soler** (EITBko Makillaje-arduraduna. Miramon).
- 40 ordu bi astetan** (datak eta ordutegiak zehazteke).
- Gehienez 4 ikasle tailer** bakoitzeko.
- Praktikak**: 2 bisitaldi benetako lan-inguruneetara: telebista-estudiora, filmaketa batera edo argazki-saio batera. (Aukeraren arabera)
- Trebakuntza egiaztatzen duen **diploma**.
- Lekua**: SOLERBMAK makillaje-estudioa. Elkano kalea 6, behea. 20004 Donostia.